



zozketa

Edurne

Oroz Malok Shin Chanen marrazkia, eta Jaimitoren txistea igorri ditu Zure Txokoko irakurleentzat. Edurnek Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan ikasten du; 5. maila egiten ari da.



txistea

Jaimito eta lagunak gelan daude eta irakasleari boligrafoa erortzen zaio lurrera. Jasotzera joaten denean, kuleroak ikusten zaizkio. Guztiak barrez hasten dira, eta irakasleak esaten du:

- Aizu, Josu, zer ikusi duzu?

Eta Josuk:

- Nik orkatila.

Irakasleak:

- Egun bat klaserik gabe. Aizu, lñaki, eta zuk zer ikusi duzu?

lñakik erantzuten dio:

- Nik oinak.

Irakasleak, haserre:

- Aste bat klaserik gabe. Jaimito, eta zuk zer da ikusi didazuna?

Jaimitok:

- Bueno, mutilak hurrengo urte arte!!!

Irakurleen artean Olentzero, Gabonetako

ipuina filmaren liburuak eta CDak, **Jolasen Altxorra** bideoak eta **15 urte beti zuekin....Katxiporreta!!**

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen CDak genituen irakurleen artean zozketatzeko. Hauexek dira zozketako irabazleak:

Olentzero, Gabonetako ipuina liburua

► Maddi Sanchez Bedia (Bizkaia).

► Xabier Murgiondo (Oñati).

► Mikel Madina.

► Amaia Ibarluze (Donostia).

Olentzero, Gabonetako ipuina CDa

► Maddi Murgiondo (Oñati).

► Aiert Etxeberria (Gasteiz).

► Eneritz Dueso (Irun).

Jolasen Altxorra bideoa

► Bittor Hernando Ibero (Donostia).

► Garazi Leanizbarrutia (Gasteiz).

► Olatz Ortega (Bilbo).

► Unai Agirre (Donostia).

► Naima El Bani (Bilbo).

15 urte beti zuekin... Katxiporreta!! CDa

► Iraitz Astiz (Leitza).

► Ander Galarreta (Astigarraga).

► Ander Goiriena (Bilbo).

► Julen Monteserin (Gasteiz).

► Aissa Intxausti (Lekeitio).

Zorionak guztiei!!!

narrazioa

Lesakako Mikel Rodriguezek ondorengo ipuin hau idatzi du XINGOLAKo irakurleentzako.

Itzali ziguten argia

Urteak, hamarkadak, mendeak joanak dira Europako herririk hedatuena ugazaba ankerrek zuzenduriko bi zahar etxe erraldoien artean zatiturik dagoenetik. Denbora luzez, odol eta malako dezenteak busti dute lur hau, gudan aritutakoen garrasi eta haien amen sufrikario aunitz entzun ditu lur honek; borroka, triskantza eta zapalketa ugari ere ikusi ditu. Non geratu da Orreagako espiritua? Non Gasteizko setioan erori zirenen adorea? Non Amaiurren isuri zen odola? Non Matalazen borroka? Non gure aberriaren batasuna? Inbasoreek beren atzaparrez hartu gintuztenetik gure artean amnesia izurrite bat zabaldu dute, batasun horri izaera eta gorpuzkera eman zioten martiriak ahan-tzi ditugularik, batasun hori gaur egun ia ezinezko bihurtuz. Noiz piztuko da, beraz, gure artean itzalarik dagoen argia? Edo hobeki erranda, nortzuek piztuko dute behinola bortizki itzali ziguten argia? Noiz hegaturiko da berriz libreki Ebro eta Atturri artean euskaldunon artean euskaldunon Arrano Beltza?

Oso ongi idazten duzu, Mikel!!

Iratxe

Amaiurko Rekaldek egindako marrazkia da ondorengoa. Iratxe Amaiurko eskolako ikaslea da, eta 5 urte ditu.

Asko gustatu zaigu marrazkia, Iratxe!!



Arduraduna: Nagore Etxeberria Pikabea

Bidali zure gutunak helbide hauetara:

Posta elektronikoa

xingola@egunkaria.com